



ELKAR ADITZE MEMORANDUMA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA FLANDRIAKO ERKIDEGO ETA ESKUALDEAREN ARTEAN

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari den Iñigo Urkullu Renteria jaunak ordezkatuta.

FLANDRIAKO ERKIDEGO ETA ESKUALDEA, Flandriako ministro-presidente den Jan Jambon jaunak ordezkatuta.

Aurrerantzean, "parte-hartzaileak".

OINARRIA: Bi parte-hartzaileek

- Askatasun-, demokrazia-, justizia- eta elkartasun-balioak partekatzen dituzte.
- Nortasun kolektiboaren eta beren historiaren, kulturaren eta hizkuntzaren zentzu sakona partekatzen dute.
- Elkarrenganako konfiantzan oinarritutako adiskidetasun- eta lankidetzaloturak indartu nahi dituzte.
- Elkarrekiko interesa partekatzen dute dauden loturak mantentzeko eta areagotzeko, bi gizartearen eta bakoitzaren potentzialen ezagutza handiagoaren bidez eta denboran zehar beren artean eremu politiko, ekonomiko, sozial eta kulturean ezarri diren harremanen bidez.
- Europako politikaren gai garrantzitsuei eta ekimen interesgarriei buruzko informazioa eta esperientzia aldian-aldian trukatzeko interesa dute.
- 2015eko ekainaren 1eko intentzio-adierazpena sinatu zenetik bultzatutako lankidetzalantzeko nahi partekatzen dute, uste baitute oso gogobetegarria izan dela; horrez gain, beste lankidetzal- eta kooperazio-eremu batzuetan aurrera egin nahi dute.

ui

ADIERAZI DUTE:

Interes komuneko hainbat arlotan lankidetzan aritzeko alde biko harremanetan sakontzeko asmoa dutela.

Lankidetzan, hasiera batean, interes komuneko eremu hauetan zentratuko da:

- Digitalizazioa (baita administrazio publikoena ere), adimen artifiziala eta zibersegurtasuna.
- Berrikuntza.
- Nazioartekotzea.
- Ingurumena (batez ere ekonomia zirkularra, klima-aldaketari eta itsas ikerketari dagokienez) ekonomia urdin jasangarriaren oinarri gisa.
- Nekazaritza, landa-ingurunea eta elikagai-katea.
- Garraioak eta garraio-azpiegiturak (batez ere portuei, logistikaren garapenari, mugikortasunari eta herri-lanei dagokienez).
- Gizarte politikak.
- Garapenerako lankidetzak.
- Genero-berdintasuna.
- Gobernu irekia.
- Turismoa.
- Kultura- eta sormen-industriak.
- Osasuna.
- Estatistikak.
- Enplegua eta enplegu zerbitzu publikoak.

Bi aldeetan dauden klusterren nazioartekotze handiagoa eta kluster-egitura horien alde biko sare indartsuagoa bereziki garrantzitsuak dira arlo ekonomiko eta teknologikoko lankidetzan.

Gainera, bi aldeek elkarrekin baloratuko dute lankidetzan interes komuneko beste eremu batzuetara zabaltzeko aukera.

HONAKO XEDAPEN INSTITUZIONAL HAUEK ADOSTU DITUZTE

Lehenengoa

Parte-hartzaileek onartu dute dokumentu hau ez dagoela Nazioarteko Zuzenbidearen mende.

Bigarrena

Parte-hartzaileek MoUaren Jarraipen Batzordea sortzea erabaki dute, bi gobernuetako kanpo-arazoetarako zerbitzuek gidatuta, MoU honetan ezarritako ekintzak erregularitasunez ebaluatzeko.



Batzorde horrek gutxienez bilera bat egingo du urtean, txandaka, gobernuen bi egoitzetan. Aurrez aurre egitea ezinezkoa bada, modu birtualean egingo dute.

Lankidetzaren harreman erregularretan oinarrituko da. Beharrezkoa denean, proiektu espezifikoetan oinarritutako lantaldeak eratuko dira, aldeek onartzen badute. Proiektua proposatzen duen aldea izango da proiektuaren antolamenduaren zuzendaritzaz eta lidergoaz arduratuko dena.

Lankidetzaren gauzatzeko ekimenen etengabeko jarraipena egingo da; eta, horretarako, neurri eta programa egokiak jarriko dira abian.

Batzordeak, halaber, MoU honetan aipatu ez diren eremuetan lankidetzaren aritzeko aukerak aztertuko ditu.

Hirugarrena

Tresna honen aldaketak idatziz adierazitako adostasunez baino ezin izango dira egin. Aldaketak jasotzen dituzten dokumentuak eranskin gisa gehituko zaizkio Elkar Aditze Memorandum honi, eta haren parte izango dira.

Laugarrena

MoU honek ez du parte-hartzaileerik konprometituko finantza-konpromisorik hartzerara, ez bada idatziz eta berezita onartutakoa. Nolanahi ere, parte-hartzaileek izan ditzaketen gastuak urteko aurrekontu arrunta izatearen baldintzapean egongo dira, indarrean dagoen legeria errespetatuz.

Bosgarrena

MoU honen hasierako aplikazio-aldia bost urtekoa izango da, eta isilbidez berri ahal izango da iraupen bereko aldietarako; salbu eta parte-hartzaileetako batek MoUaren aplikazioa amaitzeko asmoa adierazten badu, gutxienez denboraldi bat amaitu baino hiru hilabete lehenago eta beste aldeari idatziz jakinarazten badiu.


Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 15ean sinatua; gaztelaniazko, euskarazko eta nederlanderazko bina aletan; hiru testuak ere benetakoak izanik.

Eusko Jaurlaritzak



Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria

Flandriako gobernuak



Jan Jambon
Ministro-presidentea